


BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure baliozko proposamenari buruz hitz egingo dugu, hau da, gure proiektua aurkeztuko dizuegu. Hemen hainbat esparru ukituko ditugu, diseinua, erabilera, helburua...

Pertsonako gastatzen den paper kopurua ikertu dugu eta pertsona bakoitzak urtero 500.760 paperezko orri gastatzen ditugula ikusi dugu. Honek izugarritzko gabezia sortzen du gizartean, papera egiteko zuhaitzak moztu behar direlako eta honek gerroz eta arazo handiagoak sortzen dituelako. Arazo hori konpontzeko guk paperetik tinta ezabatutuko duen makina bat sortuko dugu, proiektu hau Asiako herrialde batzuetan, batez ere Txinan, aurrera eramán dute, baina konturatu gara oraindik ez dela Europara iritsi. Asiako herrialdeetan sortutakoak bakarrik inprimagailuaren tinta ezabatzen du, baina gure makinak boligrafoaren tinta ere ezabatuko du. Uste dugu gizartearentzat aurrerapen garrantzitsua izan daitekela eskoletan sortzen den kutsadura asko murriztuko genuelako.

Gure makina 100 X 150 X 170 cm-koa izango da, inprimagailu baten forma edukiko du. Orriak irekigune batetik sartuko dira eta makinaren beste aldetik atera. Makinaren kolorea beltza izango da. Bi modutan ezabatzeko aukera edukiko duenez pantailatxo bat edukiko du non laserra edo plantxa erabiliz, nahi duzuna ezabatzeko ahalmena edukiko duzun. Pantailatxoa makinaren aurpegi baten erdialdean egongo da, euskara eta gaztelania edukiko dituzte hizkuntzak, eta bezeroak izango dute hizkuntza aukeratzeko baimena, eta nahi duten momentuan aldatzeko gai izango dira.



Erabilgarritasunari begira guk guztia erraztuko genuke, gurekin kontaktuan jartzean makinaren funtzionamendua azalduko genuke eta arazoren bat sortuko balitz guk konponduko genuke. Makinarekin sortzen diren mantenimendu arazoetaz gu arduratuko gara, eta gure produktuarekin batera mantenu bat eskeiniko dugu. Makina eskuratu ahal izateko gurekin kontaktuan jarri beharko dira, eta gu izango ginateke produktua nahi duzun lekura eramango genukeenak. Prezioari dagokionez, merkatuan dauden antzeko aparatuekin konparatu dugu, eta pentsatu dugu produktu honen gutxigorabeherako prezioa 1.900€-koa izango dela.

Gure makina edozein tinta mota ezabatzeko gai izango da, inprimagailuetako tinta ezabatzeko laserra erabiliko du, bestalde, bakarrik boligrafoaren tinta ezabatu nahi baduzu plantxa erabili beharko da, eta horretarako, makinan egongo den pantailatxoan programatu dezakezu nola nahi duzun ezabatu orria. Makinak papera ezabatzeko hartuko duen denbora kalkulatu dugu eta gutxi gora behera bizpahiru segundutan egongo da garbiketa egiten eta ondoren sartu duzun kontrako aldetik aterako litzateke, paper berri bat izango balitz bezela.